



EBAZPENA, 2020ko ABUZTUAREN 6koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2020ko URTARRILAREN 31an IREKI ZIREN ORDEZKOGAIEN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez ordezkapenatarako izangaien aparteko zerrendak ireki ziren ondorengo mailetan: Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzak. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen arabera.

Zerrenda horietan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda argitara eman zen, 2020ko otsailaren 3tik 7ra bitartean, biak barne, aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta. Behin-behineko zerrenda horien kontra aurkeztutako erreklamazioak berrikusi eta akatsak zuzendu ondoren, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrenda emango da argitara.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzak mailetan, ordezkapenatarako zerrendetan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda; hori Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez ireki ziren. Kanpoan utzitakoen kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoa edo arrazoiak adieraziko da/dira.

Bigarrena.- Zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak alfabetikoki izen-deituren arabera ordenatuko dira; 2019/2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehazten duen letra finkatzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza L letra izan zen; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko otsailaren 14ko ebazpenaren bidez argitara eman zen.

Hirugarrena.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak ondorengo tokietan kontsultatu ahal izango dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak” (Prozesuaren Segimendua) estekan klik eginez.
- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> orrian / Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2020-01-31ko deialdia, eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.



Bi kasuetan edozeinetan, aldez aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orrian lortu ahal izango dira, “Pasahitza eskuratu (edo berreskuratu)” estekaren bidez.

Ondoren, eta “Kontsulta pertsonalizatua” estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendatik baztertuta geratu diren pertsonen kasuan, “Kontsulta pertsonalizatua” atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Interesatuak gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; hau da, 2020ko abuztuaren 7tik irailaren 7ra bitartean, biak barne.

Errekurtsuak erregistro elektronikoren bidez, postetxean (gutun-azal irekian, dokumentazioa datatua eta zigilatua izan dadin, ziurtatu aurretik) edo Zuzenean zerbitzuan (hitzordua eskatuta) aurkeztu ahal izango dira.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 6